

Foru Aldundiak azaroaren 25eko kanpaina protagonista gazteekin abiarazi du, kontrolaren eta 'Iodifobiaren' aurkako mezuekin, eta harreman sanoen alde

Izaro, Kai Nakai, Mafalda eta ETS taldeen ahalduntze letrek eta Paula Fernández influencer-aren eta Kai Nakairen irudiek jarriko dute mezua Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean

'Aske maite-Quiere libre' sare sozialetan iraulitako kanpaina baten goiburua da

Gasteiz, 2020ko azaroaren 20a. Gazteekin eta gazteentzat. Aurten, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunerako Arabako Foru Aldundiak egin duen sentsibilizazio kanpainaren hartzaileak Arabako gazteak izango dira. Azaroaren 25ean, asteazkena, ospatuko da nazioarteko eguna.

Kanpainaren ardatza musikaren hizkuntza unibertsala da, non gazteek beren sentimenduak aurkitzen eta erakusten dituzten. Lau kartel erabiliko dira gazteentzat oso ezagunak diren abestien pasarteekin, kontrolaren eta "Iodifobiaren" aurka eta harreman sanoen alde. Hori guztia 'Aske maite-Quiere libre' goiburuaren pean.

Adierazpen iraingarrien aurrean edo emakumea umiliatu edo kontrolatu nahi dutenen aurrean, ahalduntze mezuak nabarmentzen dira. Izaroren 'Libre' abestia: "Bizi nahi dut libre, zure legeen kontra, zure usteen kontra...". Iekorako ETS taldearen 'Díselo ya' abestia: "Díselo, díselo ya, no está dispuesta. Díselo, díselo ya...". Kai Nakai reggaetoi abeslari feministaren 'Kolpe' abestia: "Nahi dudana jantzi, gaur lagunok hautsi behar dugu gaua erditik...". Eta Valentziako Mafalda taldearen 'En guerra' abestia: "Cuánto ha de aguantar la mujer para que se le respete de una vez...".

Indarrez betetako kartel horien irudi lurraldeko gazteentzat erreferentzia diren bi gasteiztar izan dira: Paula Fernández influencer-a eta Kai Nakai.

Biek parte hartu dute gaur goizean Aldundiko jauregian egin den prentsaurrekoan, Nerea Melgosa Arabako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Berdintasunaren zuzendariarekin batera, eta kanpainaren nondik norakoak eta haien lankidetzaz azaldu dituzte.

Covid-19 pandemia modu desberdinean eragiten ari da emakumeengan eta gizonengan, azaldu du Nerea Melgosak, eta datuek erakusten dutenez, "emakumeak eta neskak krisialdi honen ondorio negatibo gehiago jasaten ari dira diskriminazioari, indarkeriari eta eskubide urraketari dagokienez".

"Iodifobiarekin", kontrolarekin eta harreman sanoak izatearekin lotutako prestakuntza edukiak izan ziren esanguratsuenak. Egindako inkestatik jasotako datuek azaroaren 25eko kanpaina diseinatzeke balio izan dute. Galdetutako gazteen % 42k esan zuen jelskortasuna ona zela, eta % 44k adierazi zuen konfinamenduan bikotekideak zer egiten ari zen erakusteko eskatu ziola. % 88k esan

zuen ariketa fisikoa egiteko eta argaltzeko presioa sentitu zuela, eta % 56k baieztatu zuen udan gorputza erakusten ez dela ondo sentitzen.

"Horregatik guztiagatik, indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatzeko estrategia bultzatzen jarraitzea erabaki dugu, hainbat eremutan indarkeria prebenitzeko eta gazteei zuzenduta. Mezuak irmoagoak eta zuzenagoak dira, hizkuntza erraza dute, eta mezuaren jasotzaileak direnek egin dituzte", azaldu du Nerea Melgosak. Hori dela eta, kanpaina gazteengandik hurbilago dauden guneeetan kokatu da, hala nola sare sozialetan edo komunitate eremuetan.

Dagoeneko kartelak banatu dira Arabako kuadrilletan eta udaletan, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten eta indarkeria matxista desagerrarazteko borrokatzen duten erakundeetan ere.

Berdintasunerako zuzendariak kanpaina honen barruan Arabako kirol klub profesionalen inplikazioa nabarmendu nahi izan du; izan ere, minutu batez isilik egongo dira azaroaren 25etik hurbil jokatzeko diren partiden hasieran. Era berean, LAIA eskolak genero indarkeriaren aurkako sentsibilizazio ekimenak ugaritu ditu bere azaroko programazioan.

[Bideoa Kai Nakairekin](#)

[Bideoa Paularekin](#)

Informazio gehiago a25n.laiaeskola.eus webgunean